



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

Jose Maria Alzuri Vertiz
Maria Larretxea Echeverria
Pedro Francisco Mindegua Elizalde
Miren Ilarregui Belarra
Ainhua Bereau Altxu

2024ko urriaren 29an, 16:00ak direnean, ohiko osoko bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Francisco Javier Bereau Miquelarena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. ZUBIETA, ITUREN, ELGORRIAGA ETA DONEZTEBE UDALERRIETAN “URAREN BIDEA” BIZIKLETA BIDE GISA EGOKITZEKO PROIEKTUAREN PLIEGOAK ONARTZEA.

Ikusirik, 66/2024 ebazpenan, apirilaren 5ekoa, Garraio eta Mugikortasun Iraunkorreko zuzendari nagusiarena, Nafarroako toki entitateentzako diru-laguntzen deialdia, proiektuak egiteko bizikletentzako eta bizikletentzako azpiegiturak onartu zen. Doneztebe, Elgorriaga, Ituren eta Zubietako udalen alkateak elkarturik Martin Mindegua ingeniari teknikoari memoria baloratua egiteko eskatu zitzaion eta 2024ko ekainaren 24an hitzarmena sinatu zuten.

Ikusirik Garraioen eta Mugikortasun Iraunkorraren Zuzendari Nagusiaren irailaren 25eko 216/2024 ebazpenaren bidez, Nafarroako toki entitateei 2024 eta 2025 urteetan bizikletentzako eta bizikletentzako azpiegituretarako proiektuak gauzatzeko dirulaguntza emateko deialdia ebatzen da. Ebazpen horren bidez, Iturengo, Zubietako, Elgorriagako eta Doneztebe/Santestebaneko udalei 48.367,02 euro, 29.803,09 euro, 19.400,43 euro eta 9.673,40 euro eman zitzaizkien, hurrenez hurren.

2024ko urriaren 24an hitzarmena sinatu zuten eta obrak kontratatzeko espedientea, agiri hauek dituen:

- Martin Mindegua ingeniari teknikoak 2024ko ekainaren 21an aurkeztutako memoria baloratua onartzen da, aurrekontua 134.054,92 euro, BEZ barne.
- Kontratazioaren plegu arautzailea.
- Kontu-hartzaileak 2024ko urriaren 25an egindako txostena.
- 2024ko ekainaren 24 eta urriaren 24ko hitzarmenak

Kontuan hartuta aurretik izapidetutako espediente bat dela. Kontratu Publikoei buruzko 2/2018Foru Legearen eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

224. Eta ondoko artikuluetan ezarritakoaren arabera, Udalbatzak aho batez honako hau erabaki du:

1. “Proyecto de acondicionamiento del camino “Uraren bidea” como vía ciclable en los TM de Zubieta, Ituren, Elgorriaga y Doneztebe” izenburuko proiektua onartzea.
2. Onestea obrak kontratatzeko espedientea eta adjudikazio prozedurari hasiera ematea, kontratua prozedura sinplikatu bidez esleitzeko.
3. Kontratazioaren plegu arautzailea onestea.
4. Gastuaren baimena ematea. Aldez aurretik izapidetzen den gastua eta, hala badagokio, esleipena edo sustiarazpena, dagokion ekitaldian dagoskion betebeharrak finantzatzeko kreditu egoki eta nahikoa egotearen baldintza etengarriaren mende egonen dira.
5. Lizitazio iragarkia argitaratzea Nafarroako Kontratazioaren Atarian, gonbidapenak bost enpresei bidaliz.

2. BAGALDE ETA GANBELAR PARAJEAK OIHAN ENKANTEA: PLEGUEN ONESPENA.

Nafar Gobernuak bidalitako plegu teknikoak ikusita eta plegu administratiboak aztertuta, Udalburuak bozkatzera deitu du, eta Udalbatzak aho batez **hurrengoa erabaki du**:

- 1.- Pleguak onartzea.
- 2.- Oihan aprobetxamendua enkantean ateratzea.
- 3.- Enkantea Nafarroako Kontratazio Atarian eta Iragarki Oholean argitaratzea.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

3.- MOZIOA.

Baztango udalak aurkeztutako mozioa Oronozen egin beharreko Lanbide Heziketa zentroaren proiektuaren inguruari buruzko mozioa irakurri ondoren, Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Mozioa onartzea.

2.- Akordioa, Nafarroako Gobernuari eta Hezkuntza Departamentuari jakinaraztea.

“Urte aunitz pasa dira Baztan-Bidasoa eskualdean erreferentziazko Lanbide Heziketa zentro integratu baten beharra identifikatu zenetik. Bide horretan, 2012an eman ziren lehenbiziko pausuak.

Geroztik, eskualdeko Udal guztiek, Elizondo Lanbide Eskolak, Berako Toki Ona institutuak eta eskualdeko eragile sozio-ekonomikoek bat egin zuten eskualde osorako lanbide heziketa zentro integratu berri baten proiektua garatzeko ekimenean.

2016an Geroa Bai, EH Bildu, Podemos eta Izquierda-Ezkerrak Nafarroako Parlamentuan Baztan-Bidasoa eskualdean ikastetxe berri bat eraikitze eskaera aurkeztu zuten eta mozioa aho batez onartu zuen Nafarroako Parlamentuak.

Zenbait pausu eman ondotik, 2022ko uztailean Nafarroako Gobernuak Oronozko zentro integratu berriaren erredakzioaren lizitazioa atera zuen eta 2023ko otsailean esleitu zuen, 435.000 euroan.

Paraleluki, Oronozko ikastetxe berriak izanen duen hezkuntza eskaintza landu zen eta Elizondoko eta Berako ikastetxeetako hezkuntza eskaintzaz gain, Oronozko Lanbide Heziketa zentro berrian Agroekologia ikasketak eskaintzea adostu zen, Baztan-Bidasoko udalgintza eta hezkuntza sektoreek zein sektore sozio-ekonomikoak egindako azterketan oinarrituta, izan ere, eskualdearen garapen integralerako estrategikotzat jo zen. Agroekologiarekin batera, Hezkuntza Departamentuak Informatika ikasketa berriak eskaintzea ere aurreikusi zuen.

Gaur egungo hezkuntza eskaintzari dagokionean, aipatu behar da, eskualdeko beharrei erantzuteko helburuarekin, Elizondo eta Berako ikastetxeetako eskaintza dibertsifikatua dela, eta eskaera ere handia dela. Azken urteetan lau ziklo berri jarri dira eta Lanbide Heziketako matrikula bikoiztu egin da.

2024 urte hasieran zentro integratuaren obren lizitazioa atera eta martxoan esleipena hutsik gelditu zen. Esleipena hutsik gelditu ondotik Nafarroako Gobernuak jakinarazi zuen hutsik gelditzearen arrazoiak aztertuko zituela eta esleipen prezioa igo gabe proiektuaren berregokitze bat egingen zuela, 2024 urte bukaeran berriz ere obren lizitazioa egin ahal izateko.

Dena den, orain Nafarroako Gobernuak jakinarazi du aurrean ez duela lizitazio berririk egingen. Proiektua birdimentsionatu behar dela ohartarazi du eta 2025ean proiektu berri baten erredakzioa lizitatu ondotik, Oronozko Lanbide Heziketa zentro berriaren obrak 2026an hastea aurreikusten du.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

Gainera, bere garaian adostutako hezkuntza eskaintza berrikusi behar dela dio, orain arte adostutakoa ezbaian jarritz.

Honen aitzinean, Baztan-Bidasoko Udal guztiek, Elizondo Lanbide Eskolak, Berako Toki Ona institutuak eta eskualdeko eragile sozio-ekonomikoez azken egunetan egindako bileretan berretsi dute eskualdean erreferentziazko Lanbide Heziketa zentro integratu baten beharrak bere horretan segitzen duela, baita aurreikusitako hezkuntza eskaintzak ere, horregatik,

PROPOSATZEN DUT

- 1- Nafarroako Gobernuari eta Hezkuntza Departamentuari exijitzea Oronozen aurreikusitako Lanbide Heziketa zentro berriaren proiektu berdinarekin jarraitzea eta lehenbailehen martxan jartzea. 2015ean Nafarroako Parlamentuko hezkuntza batzordeak Elizondo Lanbide Eskolara egindako bisitaren ondotik idatzitako txostenean argi erraten zen ikastetxea “egoera tamalgarrian” zegoela. Ordutik ez da inbertsio erranguratsurik egin, ikastetxe berria eraiki behar zela argudiatuz.
- 2- Eskualdearen etorkizunerako estrategikoa den heinean, Nafarroako Gobernuari eta Hezkuntza Departamentuari exijitzea Oronozko Lanbide Heziketa zentro berrirako orain arte aurreikusitako hezkuntza eskaintza mantentzea.”

Eta bertzerik ezean, 16:30ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.